por el simple hecho de que en la citada ciudad reside una parte sustancial del exilio cubano, nos parece una desproporción. En cualquier caso, el sistema penal norteamericano tiene sus procedimientos de apelaciones, recursos, revisiones... que como sistema democrático que sí es, se encuentran garantizados para el conjunto de los ciudadanos y de las ciudadanas. También tenemos que añadir que la moción indica que el jurado no aceptó ninguno de los atenuantes alegados por la defensa, lo cual implica un reconocimiento implícito de los hechos delictivos, ya que de lo contrario la defensa debería de haber pedido la libre absolución de los encausados, cosa que no consta que hiciera a tenor de lo expuesto, por lo menos, en la moción.

- En segundo lugar, la moción utiliza un hecho puntual y trata de presentarlo como un hecho habitual en el sistema penal norteamericano. Los Estados Unidos, mal que les pese a algunos, es una democracia, con sus imperfecciones, pero una democracia al fin y al cabo, a diferencia de lo que ocurre con el régimen totalitario cubano. El sistema judicial norteamericano tendrá sus fallos pero también sus mecanismos de revisión para enmendarlos. Es evidente que no vamos a respaldar planteamientos que destilan un profundo antiamericanismo primario sobre un país que atesora años de democracia y cuyo texto constitucional ha servido de referencia para muchas naciones democráticas. La carta de derechos elaborada por James Madison garantiza todos los derechos fundamentales de la persona y establece un sistema de límites y contrapesos que los garantizan. Desde hace mucho tiempo los norteamericanos le llaman a eso "checks and balances".

- En tercer lugar, a la moción le falta algo que consideramos fundamental y que desde el ámbito de la izquierda, o de cierta izquierda, se niega sistemáticamente. Falta un reconocimiento de

mozioan ez da onartzen Kubak sistema totalitario eta diktatoriala duenik, eta aintzatespen hori egin beharreko urratsa da, sistema hori gaitzesteko eta Kubako herriarentzako benetako demokrazia eskatzeko. Aipatutako batzorde horrek berak txosten bat egin du Kubari buruz eta hango gobernuak egiten dituen legez kanpoko atxiloketei buruz, eta nazioarteko hainbat erakundek, hala nola Amnistia Internazionalek eta *Human Rights Watch* erakundeak, Kuban giza eskubideak sistematikoki jazartzen direla salatu dute. Ameriketan arrazoi politiko hutsengatik legez kanpoko atxiloketak egiten diren herrialderen bat izatekotan, Kuba da herrialde hori; Ameriketan epaiketak auziperatuentzako inolako bermerik gabe egiten diren herriren bat bada, Kuba da hori; Ameriketako herrialderen batean tratu iraingarria hartzen duten preso politikoak egotekotan, Kuban; Ameriketako herrialderen batean norbanakoen zein taldeen eskubideak eta askatasuna urratzekotan, Kuban; Ameriketako herrialderen batean giza eskubideei buruzko nazioarteko akordioak, hitzarmenak eta adierazpenak ez betetzekotan, Kuban.

Azkenik, deitoragarriak iruditzen zaizkigu guztiz kubatar erbesteratuei buruz egindako aipamen maltzur horiek, talde terroristatzat jo baitira eta hainbat heriotzen arduradun. Miamin bi milioi eta erdi erbesteratu baino gehiago bizi da, ezin baitira beren herrialdean bizi, eta erbesteratu horiena da, hain zuzen ere, Kubako herriak jasaten dituen bidegabekeriak saltzen dituen ahots bakarra. Hona hemen mozioa idatzi dutenentzako edo hura aurkeztu nahi izan dutenentzako hausnarketa-gai bat: zergatik dira erbesteratuak noranzko bakarrekoak? Zergatik saiatzen da jendea Kubatik Floridara igerian iristen eta ez alderantziz Floridatik Kubara? Horrenbestez, saiheska bada ere, halako adierazpenak egitea, gutxienik ere, erbeste ideologikoa jasan behar duten horienganako errespetu falta itzela iruditzen zaigu.

Nazio Batuetako lan-taldeak egindako txostena errespetuz hartuta ere, adierazpen

que Cuba es un sistema totalitario y dictatorial como paso previo para condenarlo y pedir la llegada de una verdadera democracia para el pueblo cubano. La propia comisión apelada también ha emitido informe sobre Cuba y las detenciones ilegales que practica su gobierno, así como también organismos internacionales como *Amnistía Internacional* o *Human Rights Watch*, han denunciado estos organismos la persecución sistemática de los derechos humanos en Cuba. Si en un país americano se practican detenciones ilegales por razones estrictamente políticas eso es en Cuba; si en algún país de América se celebran juicios con una ausencia absoluta de garantías para los procesados ese es Cuba; si en algún país de América existen presos políticos que reciben un trato vejatorio ese es Cuba; si en algún país de América se vulneran los derechos y libertades individuales y colectivos ese es Cuba y si en algún país de América no se respetan los tratados, convenios y declaraciones internacionales en materia de derechos humanos ese es Cuba.

Por último, nos parece lamentable las referencias solapadas al exilio cubano, calificándolo de grupos terroristas y responsables de innumerables muertes. Si en Miami residen más de dos millones de exiliados es como consecuencia de la imposibilidad que tienen de hacerlo en su país, y el exilio cubano representa la única voz de denuncia ante los atropellos que sufre el pueblo de Cuba. Plantéense, por ejemplo los redactores de la moción o quienes han querido presentarla, por qué el exilio se produce en una dirección y no en otra, porque la gente, a veces, intenta salir nadando de Cuba hacia Florida y no de Florida hacia Cuba. Por tanto, insinuar, aunque sea de forma velada, tales consideraciones nos parece, cuando menos, una falta de respeto para quienes sufren un exilio ideológico.

Respetando el informe emitido por el grupo de trabajo de las Naciones Unidas, y aquí

labur-labur bat egin dut, parte-hartze hau amaitze aldera; izan ere, Estatu Batuek Kubarekiko blokeoaren politika darabiltelako ideia dago mozio honen oinarrian. Blokeoak, baina, esanahi jakin eta zehatza du nazioarteko zuzenbidean. Eta ez dago Kubarekiko inolako blokeorik, ez horixe; merkataritza-enbargoa dago. Estatu Batuek ez dute Kubarekin merkataritza-harremanik eta ez diote hari finantza-kreditureik ematen, baina esan gabe doa Kubak Estatu Batuetatik kanpoko beste edozein herri edo enpresarekin ezar ditzakeela merkataritza-harremanak. Hori bai, agian, argudio horretaz baliatu nahi da baten bat, Kubako sistemaren porrota zuritzeko, eta porrot horren atzean zer dagoen ezkutatzeko, alegia, kudeaketa eskasa, ekoizpen nahikorik ez, testuinguru egonkorrik ez (legearen eta eskubide-estatuaren agintepean lortzen baita hori), eta funtsezko eskubide eta askatasunaren erabateko falta ankerra. Agidanez, ahaztu egin zaie, halaber, Sobiet Batasuna zegoeneko garaia; orduan, estatu horrek mila miloi dolar baino gehiagoko mailegua edo finantzazioa ematen zion urtean Kubako sistemari; alabaina, kubatarren batez besteko soldata hamar dolarren bueltan egotea baino ez du lortu sistema horrek.

Horrenbestez, eztabaidagai dugun mozio honen kontra bozkatuko dugu guk; izan ere, Estatu Batuetako sistemaren izen ona zikintzea baino ez da mozioaren asmoa, eta gertakari jakin eta zalantzagarri batez baliatzen da horretarako; gainera, bazter uzten du Kubako herriak duela 50 urtetik hona bizi duen zapalkuntza sistematikoa, eta ez du kastrismoa amai dadin eskatzen —sistema bitxietan bitxiena, gerontokrazia hereditario hori.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Mozioari dagokionez, bat etor gaitezke —are gehiago, bat gatoz— mozioaren azalpenaren atalarekin, baita lehen puntuarekin ere. Gainerakoari dagokionez, bistan da udal honek ez duela halakoetarako eskumenik; gure ustez, bada, Eusko Legebiltzarrera igorri beharko litzateke gai hori, erakunde horrek baitu beste estatu batzuekin

haré una referencia muy incidental, y acabo, la moción parte de la idea de que sobre Cuba Estados Unidos practica una política de bloqueo. Bloqueo, en derecho internacional, tiene un significado muy concreto. Desde luego no existe ningún bloqueo sobre Cuba, lo que existe es un embargo comercial. Estados Unidos no comercia con Cuba ni le da créditos financieros, pero es evidente que Cuba puede comerciar con cualquier país o empresa ajena a Estados Unidos. Otra cosa es que alguien quiera defender que el sistema no funcione no por su mala gestión o porque sea corrupto, o por la falta de productividad o por la carencia absoluta de un marco estable que signifique imperio de la ley y estado de derecho, y con la ausencia más total y atroz de derechos y libertades fundamentales. Se olvidan también, de que cuando existía un país como la Unión Soviética, ésta prestaba y financiaba con más de mil millones de dólares al año un sistema que lo único que ha podido conseguir es que el salario medio de la población cubana esté en torno a los diez dólares.

Por lo tanto, considerando que la moción persigue un planteamiento de descrédito generalizado del sistema norteamericano, a partir de un hecho puntual y discutible, y fundamentalmente porque omite la sistemática vulneración que sufre el pueblo cubano desde hace 50 años, así como la exigencia del fin del castrismo, sistema muy curioso que se podría definir como una gerontocracia hereditaria, nuestro voto será contrario a la moción objeto de debate.

* Concejala **Sra. Ríos Ramos PSE-EE (PSOE):** Referente a la moción, en nuestro caso podríamos compartir y de hecho compartimos la parte justificativa de esta, e incluso el punto primero. Respecto al resto, es evidente que este Ayuntamiento no es competente y que si verdaderamente creemos lo que aquí se pide se debería enviar al Parlamento, que es quien tiene relaciones bilaterales con otros estados y

alde biko harremanak ezartzeko legezko eskumena. Horregatik, bada, kontrako botoa emango diogu, tamalez.

* **Perez Balanzategi jaunak (Talde Mistoa)**: Lehenik eta behin gura nuke aipatu, mozioan ez da aipatzen, bost kubatar hauen atxiloketen "prebio" bat. Aipatu izan den moduan, egia da kubatar hauek Estatu Batuetan egon zirela hango zenbait kubatar subiranotasunaren kontrako lanketak egiten dituzten eragileek ikuskatzen eta ikusten zertan dabiltzan. 1998ko ekainean, Kubako estatu segurtasunaren eta FBIren arteko batzar baten, kubatar hauek lortutako informazio guztia aurkeztu zien FBIari, ikusteko , benetan zeintzuk ziren eragile horiek egiten zituzten jarrera demokratiko eta guztiz baketsu horiek. FBIkoek harritu egin ziren informazio guzti horrekin eta Kubako Segurtasun Zerbitzuei esan zieten bi hilabete pasatuta erantzungo ziela. Erantzuna 1998ko irailean etorri zen bost kubatar hauen atxiloketekin. Kargu faltsuek egotzi zizkieten eta epaiketan fiskaltzak ezin izan zuen probarik aurkeztu kargu horiek sustengatzeko.

Erakutsi nahi dut, orain esan behar dudanarekin, Estatu Batuek duten jarrera Kubarekiko: Lehenik eta behin Fidel Castroren kontra 638 atentatu saio egon dira, bestetik Amerikako Estatu Batuetatik Kubaren kontrako 5.780 eraso egin ziren eta 3.478 pertsona hil zituzten 1959-1997 urteen artean. 1959-2003. urteen artean 61 hegazkin eta itsasontzi bahitu zizkioten Kubari; 1961-1996 urteen artean itsasontzietatik 58 eraso egin zituzten eta CIAk 298 talde paramilitar zuzendu eta babestu izan ditu. Kubaren kontrako eraso horien artean gerra kimikoa eta bakteriologikoa erabili izan da. 50 urte baino gehiagoz, Washingtonek onartu eta bultzatu egin du Kubaren aurkako erasoak antolatzen eta babesten dituen sare bat egotea. Eta elementu horiek Miamitik ibiltzen dira zigorgabetasun osoarekin, jakinda zeintzuk diren eta zertara dedikatzen diren, eta txarrena da eurek ere onartu egiten dutela.

está legitimado para ello. Por estos motivos, y sintiéndolo mucho, vamos a votar en contra.

* Concejal **Sr. Perez Balanzategi (Grupo Mixto)**: Para comenzar, quisiera hacer referencia a un antecedente que no se menciona en la moción, un previo a la detención de estos cinco cubanos. Y es que tal y como se ha señalado, es cierto que estos cubanos estuvieron en Estados Unidos investigando y recabando información a cerca de actuaciones de ciertos activistas en contra de la soberanía cubana. En junio de 1998, en una reunión realizada entre el Departamento de Seguridad de Estado de Cuba y el FBI, se presentó al FBI toda la información obtenida por estos cubanos, para que estuvieran al corriente de cuáles eran realmente esas actuaciones democráticas y totalmente pacíficas que realizaban dichos activistas. El FBI se quedó asombrado ante toda esa información, y contestaron al Servicio de Seguridad Cubano que les responderían pasados dos meses. Y la respuesta se produjo en septiembre de 1998 con la detención de los cinco cubanos, a los que se les imputaron falsos cargos, ante lo cual, durante el juicio, la fiscalía no pudo presentar ninguna prueba que sostuviera dichos cargos.

Con los datos que voy a lanzar a continuación, lo que pretendo es poner en evidencia la postura de los Estados Unidos ante Cuba: para empezar, se han contado 638 intentos de atentado contra Fidel Castro; entre los años 1959-1997 se produjeron 5.780 ataques desde los Estados Unidos hacia Cuba en los que mataron a 3.478 personas. Entre los años 1959 y 2003 secuestraron a Cuba 61 aviones y barcos; entre los años 1961 y 1996 se lanzaron 58 ataques desde barcos y la CIA ha dirigido y apoyado a 298 grupos paramilitares. En esos ataques contra Cuba se han llegado a utilizar armas químicas y bacteriológicas. Durante más de 50 años, Washington ha aprobado e impulsado la existencia de una red para la organización y promoción de ataques contra Cuba. Y esos individuos actúan en Miami con total impunidad, aun sabiéndose quiénes son y a qué se dedican, y lo peor es que ellos mismos lo admiten.

Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako agentzia (USAID) 2009. urtean 15,62 milioi dolar eman zizkien Kubaren subiranotasunaren kontrako lanak egiten zituzten talde horiei; honi gehitu behar zaio Estatu Batuak diruz laguntzen dituen beste fundazioak egiten dituzten donazioak. Hemen aipatu izan da blokeorik ez dagoela, egia da Estatu Batuak esaten duela enbargo ekonomikoa dela, baina egia da Kubak ezin duela Estatu Batuekin komertziatu, baina Estatu Batuak Kubarekin komertziatzen duten enpresa eta eragileei ere santzioak jartzen dizkiote, adibidez, Kubako edozein portutan egon den itsasontzi batek badauka nolabaiteko "cuarentena" Estatu Batuetara sartzeko. Eta honi, ez zaio izen hori jarriko baina berez, blokeoa bat da.

La Agencia para el Desarrollo Internacional de Estados Unidos (la USAID), en 2009, concedió a estos grupos dedicados a realizar acciones en contra de la soberanía Cubana 15,62 millones de dólares, a lo cual se debe añadir las donaciones realizadas por diversas fundaciones subvencionadas por los Estados Unidos. Se ha asegurado que no existe un bloqueo, y es cierto que los Estados Unidos también lo llaman embargo económico; es cierto que Cuba no puede comerciar con los Estados Unidos, pero igualmente cierto es que además los Estados Unidos sancionan a las empresas y promotores que comercian con la isla; así, por ejemplo, a todo barco que haya atracado en algún puerto cubano, le imponen una especie de "cuarentena" para entrar en Estados Unidos. Y tal vez no lo llamen así, pero eso es bloqueo.

Aipatu izan da Sobiet batasuna, baina aipatu ez dena da Sobiet Batasunarekin Kubak zituen harremanak akordio komertzialak zirela, beste herrialde batzuekin egiten duen moduan, ez ziotela dirua ematen, baizik eta gehienbat azukrea komertzializatzen zen. Aitortu behar da Kuba URSSen lagun preferentzIala zela, baina hemen estatu guztiek dauzkate horrelako lagunak. Kontua da bakoitzak gorri separatista edo horrelakoekin daukan fijazioa.

Se ha mencionado a la Unión Soviética, pero no se ha especificado que las relaciones de Cuba con la Unión Soviética consistían en acuerdos comerciales, tal y como lo hace con otros estados, y que no le concedían dinero, sino que fundamentalmente se comercializaba el azúcar. Es innegable que Cuba fue aliada preferente de la URSS, pero aquí todos los estados cuentan con ese tipo de aliados. Otra cuestión es la fijación que cada uno tenga con los rojos separatistas, etc.

Gaira bueltatuta, esan behar dugu guztiz bat egiten dugula mozioarekin, eta baita ere familia eta arlo internazionalean lanean ibiltzen diren pertsona guzti hauekin eta gure sostengua eta gure elkartasuna helarazi nahi diegula. Hemen ere salatzeko da, beste estatu batzuek egiten duten moduan, Estatu Batuak trabak jartzen dizkiela preso hauei euren familiekin egoteko, familiaren bisitak hartzeko, eta kartzela barruko bizitzan isolamendua, tratu txarrak eta bestelako bejazioak egiten dizkiete. Horregatik mozioaren aldeko bozka emango dugu.

Volviendo al tema que nos ocupa, queremos señalar que apoyamos totalmente esta moción; asimismo queremos ofrecerles todo nuestro apoyo y solidaridad a las familias y a todas aquellas personas que trabajan en el ámbito internacional. A este tenor debemos denunciar que al igual que otros estados, los Estados Unidos también niegan a los presos poder estar con sus familias, dificultan las visitas de sus familiares, y someten a los presos a situaciones de aislamiento, malos tratos y otro tipo de vejaciones en su día a día dentro de las cárceles. Por todo ello votaremos a favor de la moción.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Lehen Rios andreak aipatu izan du agian hau ez dela foroa, agian Parla-

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: La señora Ríos ha mencionado en su intervención que tal vez no sea este

mentua dela foroa. Agian oker nago baina uste dut gai hau jorratu dela Eusko Jaurlaritzan, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Batzordean, baina gaur hona datorkigu eta hemen eztabaidatu beharko dugu.

Nire taldeak, EAJk, elkartasuna eta laguntzaren aldeko jarrera agertzen du, Amninstia Internacional erakundearen txostenean esaten duenarekin bat egiten dugu, baina honen ondorioz esan behar dug, kasu honetan, Aralarrek aurkeztutako mozioaren azken puntuarekin ez dugula bat egiten, guk bat egiten dugu preso hauek bere kasuaren berrikusketa izan dezaten eskatzearekin, honen alde bagaude, baina hau ez dator bat azken puntuarekin. Ados gaude baita ere, Amnistia Internazionalak bere txostenean esaten duenarekin, hau da, kasua berrikusi behar dela, familiak presoak bisitatzeko eskubidea eta laguntza merezi eta behar baldin badute eman behar zaiela, baina osotasunean ez gaude ados zuen mozioarekin.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Lehen esan dudan moduan, guri mozioa aurkeztea eskatu ziguten aurkezteko, eta hona ekarri dugu. Eusko Legebiltzarrean ere eztabaidatu da, giza eskubideen batzordean. Bertan ordezkaritza duten alderdi guztiek aldeko jarrera agertu zuten, Alderdi Popularra izan ezik. Baina galdetu genuenean zergatik aurkeztu nahi zuten udal mailan esan ziguten, momentu honetan, eta ikusirik prozedura judizial guztia bukatuta dagoela, ahalik eta erakunde publiko gehienen atxikimendua behar dutela presioa egiteko. Horregatik, mozioa aurrera ateratzen ez bada, mesede eskasa egingo diogu elkarte honi nahi duten helburu horretan.

Beraz, eskatuko nuke, norbaitek baldin badauka arazoren bat punturen baten, atalez atal bozkatzea. Osorik bozkatzekotan, eta aurreikusirik ze emaitza aterako den, erretiratu egingo nuke mozioa, lortu nahi dugun helburuaren kontrakoa atera ez dadin.

el foro indicado para tratar este tema, y que debería ser tratado en el Parlamento. Tal vez me confunda pero creo que este asunto ya se trató en el Gobierno Vasco, concretamente en la Comisión de Derechos Humanos, pero hoy ha llegado el tema hasta esta sala, y lo deberemos debatir aquí.

La postura de mi grupo, el PNV, es de solidaridad y apoyo, y muestra su conformidad con lo señalado por Amnistía Internacional en su informe, pero en cuanto a la moción presentada por Aralar, no estamos de acuerdo con en su último punto. Apoyamos la petición de revisión del caso de estos presos, en eso sí coincidimos, pero no en el último punto de la moción. También estamos conformes con lo señalado por Amnistía Internacional en su informe acerca de la necesidad de revisar el caso y del derecho de las familias a visitar a los presos, y si merecen y necesitan que se les ayude, estamos de acuerdo en que se haga, pero no coincidimos con la moción en su totalidad.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Tal y como he señalado anteriormente, a nosotros nos pidieron que presentáramos la moción y así lo hemos hecho. Es cierto que este tema también fue debatido en el Parlamento Vasco, en concreto en la Comisión de Derechos Humanos, en la que todos los grupos con representación en ella se mostraron a favor, excepto el Partido Popular. Por eso, cuando les preguntamos por qué querían presentarla a nivel municipal, nos respondieron que en este momento, dado que todo el procedimiento judicial está agotado, necesitan la adhesión de todas las instituciones públicas posibles para poder ejercer presión. Por tanto, les haremos un flaco favor si la moción no prospera.

En consecuencia, quisiera pedir que si a alguien le supone un problema algún punto concreto de la moción, sea votada punto por punto. Si se decide votarla íntegramente, previendo cual será el resultado, retiraremos la moción, para que el resultado no sea justamente el contrario al que queremos lograr.

Ez naiz eztabaida sakon baten inguruan sartuko, pentsatzen dugulako badaudela beste foru aproposagoak honen inguruan eztabaidatzeko. Dena den, de la Quintana jaunak Nazio Batuen lantaldearen 19/2005 ebazpenaren zati batzuei buruz hitz egin du, baina beste batzuk aipatu ere ez ditu egin. Besteak beste, honakoa ere esaten da ebazpenean: "Dena den, Gobernuak halaz ere ez du ukatu Miamin auziperatuen kontrako aurretiazko jarrera jakin bat eta aurreiritzi-giro bat bizi ez zenik eta giro horrek auziperatuak hasieratik erruduntzat jotzeko bidea ematen ez zuenik. Nolanahi ere, ez zuen gertakari horren aurka egin, nahiz eta urtebete geroago Gobernuak berak onartu Miami ez zela epaiketa hori egiteko leku aproposa, jakina baitzen ezinezkoa izango zela ia zinpeko inpartzialak hautatzea, Kubari lotutako kasu horretan". Eta amaitzen du esaten momentu honetan ez dela betetzen Nazioarteko eskubide zibil eta politikoen hitzarmenaren 14. artikulua.

Uste dut nahiko argi dagoela hemen urraketa batzuk egon zirela eta defentsa justu bat edukitzea eta berme guztiarekin edukitzeko eskubidea urratu egin zela eta beste konnotazio eta irakurketa guztiak balioko dute jarrera bat oinarritzerako orduan, baina Nazio Batuek nahiko argi utzi dute nolako baldintzetan eman zen epaiketa hau, eta nolako baldintzetan eman diren kondena hauek.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bigarren bueltan sartu aurretik, galderari erantzuna emanez, hamar minutuko etenaldia egingo dugu. Mesedez, bozeramaleak etorri daitezela nire bulegora.

No me adentraré en las profundidades de este debate, ya que creemos que existen foros más apropiados para ello. Pero sí quisiera señalar que el señor de la Quintana se ha limitado a mencionar exclusivamente ciertas partes de la Resolución 19/2005 de las Naciones Unidas, eludiendo otras; ya que, entre otras cosas, la Resolución dirime lo siguiente: "no obstante, el Gobierno no ha negado que, aun así, el clima de predisposición y prejuicio contra los acusados en Miami persistía y contribuía a presentar a los acusados como culpables desde el principio. No fue impugnado por el gobierno un hecho que un año más tarde él mismo admitió que Miami no era un lugar adecuado para celebrar un juicio que estaba probado que era casi imposible seleccionar un jurado imparcial en un caso vinculado con Cuba". Y acaba señalando que en este momento no se cumple el artículo 14 del Pacto Internacional sobre los Derechos Civiles y Políticos.

Creo que está bastante claro que en este caso se produjeron diversas infracciones, ya que entre otras, se infringió el derecho a una defensa justa con todas las garantías, y todas las demás connotaciones y lecturas tal vez valgan a la hora de justificar una postura concreta, pero lo cierto es que las Naciones Unidas han expuesto con bastante claridad en qué condiciones se produjo este juicio y en qué condiciones se impusieron las condenas.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Antes de comenzar con la segunda vuelta, realizaremos una pausa de diez minutos, en respuesta a la cuestión planteada. Les pido a los y las Portavoces que me acompañen a mi despacho.

***Transcurridos los diez minutos de receso solicitado por la Presidencia, se reanuda la sesión abriéndose un nuevo turno de debate, con las siguientes intervenciones:***

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Talde proposatzaile bezala proposamen bat daukat egiteko: erretiratu egingo dugu mozio hau, beti ere bozkatzen baldin bada Bozeramaleen Batzordera eramatea gai hau eta bertan posible bada adierazpen instituzionala adostea.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Como Grupo proponente quisiera realizar la siguiente propuesta: retiraremos la moción, siempre que se lleve a cabo una votación para que este tema sea tratado en la Junta de Portavoces, donde si es posible se acuerde una declaración institucional.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Orain izan dugun batzarrean onartuta geratu da proposamen hau, beraz, ez dut uste beharrezkoa denik hemen bozkatzea proposamena, baizik eta zuzenean horren berri ematea eta akordio hori hartu dugula aktan agertzea, eta hurrengo asterako Bozeramaleen Batzordea antolatu puntu hau sartuta.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En la reunión que acabamos de llevar a cabo, se ha dado luz verde a esta propuesta, por lo que no creo que sea necesario votarla aquí, sino que será suficiente con que se dé cuenta de ello directamente, para que el acuerdo conste en acta y este punto quede recogido en la Junta de Portavoces de la semana que viene.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno remite la Moción anteriormente transcrita a la **Junta de Portavoces** a celebrarse la semana próxima, para su debate y posterior resolución.

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR DOÑA MARIA JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA, EN NOMBRE Y REPRESENTACIÓN DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO-EUSKO ALDERDI JELTZALEA, RELATIVA A LA RENTA DE GARANTÍA DE INGRESOS. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2011000451 DE 21 DE ENERO DE 2011).**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Dakizuenez 5. punturik ez dugu izango, mozio bat zelako EAJk aurkeztua eta EAJk berak erretiratu egin du. Beraz, zuzenean, eskaerak eta itaunetara pasatuko da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Como sabéis no tenemos punto 5, ya que se trataba de una moción presentada por el PNV y retirada por este mismo grupo. Por lo tanto, pasaremos directamente al punto de ruegos y preguntas.

**SEIS.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Hirigintzako azken Batzordeetan —abenduaren 16koan eta urtarrilaren 13koan, hain zuzen ere— Juan de Itziar auzuneko irisgarritasuna hobetzeko obrak bide onetik zihoazela esan ziguten. Juan de Itziarko auzokideek, ordea, zenbait kexa adierazi digute, eta guk geuk egoera zein den egiaztatu ahal izan dugu gaur: obra horretan ez

- Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: En las últimas Comisiones de Urbanismo del 16 de diciembre y del 13 de enero se nos ha trasladado que las obras para mejorar la accesibilidad de Juan de Iciar seguían su buen curso. Los vecinos de Juan de Iciar nos han trasladado, y hoy hemos podido comprobar, que no hay suficiente limpieza en la obra, que el barrio está sin

dago garbitasun nahikorik; auzoa garbitu gabe dago lanak hasi zituztenetik; ez dira neurri egokiak hartzen ari; makinek zenbait kutxatila eta espaloi hautsi dituzte; gainera, malda batzuk ez direla egingo esan diete auzokideei... Hala, bada, auzoan kezkatuta daude teknikariek esan dietelako proiektua osorik egiteko aurrekontua agortu dela, alegia, proiektu guztia ez dela amaituko, eta maldaren bat egin gabe geratuko dela.

Horrenbestez, egoera zertan den argitzea nahi dugu lehenbailehen, eta gaia osoko bilkura honetara ekarri dugu, hil honetan hirigintza-batzorde bakarra izan dugulako, urtarrilaren 13ko hura, eta badirudielako hil osoan ez dugula besterik izango.

limpiar desde comenzó, que no se están tomando las medidas adecuadas, que la maquinaria está rompiendo arquetas y algunas aceras y que hay rampas que a los vecinos se les ha dicho que no se van a ejecutar. Nos han trasladado su preocupación porque los Técnicos les han dicho que el presupuesto para hacer el proyecto completo se ha acabado, que no se va a acabar todo el proyecto y que alguna rampa se va a dejar sin terminar.

Nos gustaría que se nos aclarara lo antes posible, y lo traemos a Pleno porque la única Comisión de Urbanismo que hemos tenido este mes ha sido la del 13 de enero y parece que no vamos a tener otra en lo que resta de mes

- **Perez Balanzategi jaunak (Talde Mistoa)**: batzordeetan salatzen dugun bezala, hemen ere salatu behar dugu 2008ko abenduaren 18ko ohiko bilkuran onartutako Euskara Plana eta 2010eko uztailaren 20an ohiko bilkuran onarturiko Euskararen Udal araudia ez direla betetzen, ez batzordeetan ezta plenoetan ere.

Bigarrenik, eta hau ere Batzordeetan eskatzen dugun moduan, eskatu nahi dugu kale izendegiaren lanketa egitea ahalik eta arinen.

Eta azkeneko puntua izango zen elkartasuna eta sustengoa adieraztea azken hilean epaituak izan diren hiru durangarrei AHTen kontrako ekintzetan parte hartzeagatik.

Elkartasuna baita ere azken sarekadan atxilotu eta torturatuak izan direnei, eta deialdia egitea horrelako jarrerak tokiz kanpo eta garaiz kanpo daudela eta horrekin amaitu behar dela.

- Concejal **Sr. Perez Balanzategi (Grupo Mixto)**: Queremos denunciar, tal y como lo hemos hecho en las Comisiones, que tanto el Plan de Euskera aprobado en el Pleno Ordinario del 18 de Diciembre 2008, como la Normativa Municipal del Euskera aprobada en el Pleno Ordinario del 20 de Julio de 2010, no se cumplen ni en las Comisiones ni en los Plenos.

En segundo lugar, y esto también lo hemos reclamado en las Comisiones, solicitamos que se realice un estudio acerca de callejero municipal, tan pronto como sea posible.

Y para finalizar queremos mostrar nuestra solidaridad y apoyo hacia los tres vecinos de Durango que han sido juzgados este mes por participar en acciones en contra del TAV.

Igualmente quisiéramos mostrarles nuestra solidaridad a las personas detenidas y torturadas en esta última redada, y proclamar que este tipo de actuaciones están totalmente fuera de lugar y de contexto, y que se debe acabar con ellas.

Eta azkenekoa, urtarrilaren 27ko greba orokorrera deialdia zabaltzea durangar eta euskal herritar guztiei.

Para concluir, quisiéramos hacer un llamamiento a toda la población de Durango y a toda Euskal Herria a la huelga general convocada para el 27 de Enero.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:10 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.